

OSASUN ETA INGURUMEN

2007KO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN LABURPENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN



| ALORRA | ADIERAZLEA | JOERA | MEZU GARRANTZITSUAK |
|-------------------------------------|--|-------|---|
| Airearen kalitatea | 1. Kutsaile atmosferikoen immisio-mailak | ☹️ | 2005ean, 2004an bezalaxe, SO ₂ , NO _x eta CO balio kutsatzaileak Europar Batasunak eskatutako mugen barruan mantendu dira. Aldiz, hainbat estaziok PM ₁₀ partikulek eragindako kutsadurarentzat ezarritako mugako balioak gainditu egin dituzte duela gutxi arte. Zazpi estaziotan Europar Batasunak ezarritako ozono-mailak gainditu egin dituzte. |
| | 2. Partikulen ondorioz (PM ₁₀) kutsadura atmosferikoa jasandako populazioa | ☹️ | 2002tik hasita urtez urte, Europar Batasunak ezarritako balioak gainditzen dituzten partikulen (PM ₁₀) ondoriozko kutsadura atmosferikoa jasaten duen EAEko populazioaren portzentajea murriztu egin da. 2005ean nahiz eta bilakaera positiboa izan, populazioaren %14k aipatutako mailak gainditzen dituzten partikulen ondoriozko kutsadura jasaten du. |
| | 3. Kutsatzaile atmosferikoen isurketak | 😊 | EAEan, ozonoaren substantzia aitzindarien –NO _x , KOL eta CO– isurketak, guztira, %6,4 murriztu egin dira , 1990 eta 2004 artean. Europar Batasunean (EB-25) %38ko jaitsiera gertatu da. |
| | 4. Errepide bidezko garraioaren erregai-kontsumoa | ☹️ | Euskadin garraio sektoreko petrolioaren eta deribatuen <i>per capita</i> kontsumoa %87 handitu da 1994 eta 2005 artean. |
| | 5. Bidaiarien garraioaren banaketa modala | ☹️ | Pertsonen desplazamendu gehienak ibilgailu pribatuetan egiten diren arren (%58), garraio publikoa erabiltzen dutenak edota oinetz ibiltzen direnak , Euskadin, guztirakoaren %38 dira. |
| Zarata | 6. Zaratak kaltetutako biztanleria | ☹️ | Euskadin best pertsonatik batek bizi ditu hotsaren kalteak. Bizkaia dago eragin handiena bizi duen populazioaren portzentajerik handiena; lautik bat, hain zuzen ere. Bilbon, berriz, hamar pertsonatik seik jasaten ditu hotsak sortutako eragozpenak. |
| | 7. Erregulazioen, murrizketen eta zarata deuseztatze/murrizteko neurrien aplikazioa | 😊 | Hotsa saihesteko Europar Batasunaren hamalau gomendiotatik hamahiru Euskadin, egun, indarrean dauden erregulaziotan eta arauetan sartuta daude. |
| Ura eta saneamendua | 8. Kontsumoko uren kalitatea | 😊 | Euskadiko populazioaren gehiengoak, %93k, kalitate onargarriko ura edaten du. |
| | 9. Aisialdirako uren kalitatea | ☹️ | Hondartza gehienetan bainurako uren kalitatea, azken urteotan, hobetu egin da . Aldiz, EAEko 38 hondartzetatik zazpitan, 2005ean, urek kalitate maila ez gomendagarria zeukaten. |
| | 10. Hondakin uren tratamenduaren estaldura | 😊 | Euskadin biztanleen %80ren hondakin-urek izaten dute bigarren mailako edo gehiagoko tratamendua. Beraz, gure herrialdea Europar Batasuneko (EB-25) ondoen ekipatutakoaren artean dago. |
| Trafiko-istripuak | 11. Trafiko-istripuak | 😊 | 1995 eta 2005 artean, trafiko-istripuengatik Euskadiko heriotza-tasa %59 murriztu zen , Europar Batasunean (EB-25), ordea, %32. |
| Etxebizitzaren eta osasuna | 12. Etxebizitzak eraikitze erregulazioen eragina eta aplikazioa | 😊 | Euskadin, gaur egun Europar Batasunak proposatutako 12 gomendio aplikatzen dira, etxebizitzaren kalitateari eta pertsonen osasunaren babesari dagokienez. |
| Erradiazioak | 13. Azaleko minbizi kasuen agerpena | ☹️ | Azaleko minbizi (melanoma) kasuak EAEan, 1992an 144 izatetik 2001ean 253 izatera pasatu dira. |
| Larrialdi kimikoak | 14. Produktu kimikoen kopuru handia duten tokiak | — | 2006an, EAEan Seveso araudiak erregulatutako 48 establezimendu daude. Erregulatutako establezimendu kopuruak ia ez du aldaketarik izan azken urteetan. |
| | 15. Istripu kimikoekin gertatutako larrialdikasuen aurrean Gobernuaren prestaketa | 😊 | Euskadin Europar Batasunak planteatutako hamabi eskakizun aplikatzen dira, produktu kimikoak dituzten instalazio handietan istripuak saihesteko (Seveso araudia). |
| Elikadura-segurtasuna | 16. Elikagai-jatorriko edo jatorri hidrikoko agerraldiak | 😊 | EAEan kontrol sistema hobetu den arren, elikagai-jatorriko agerraldien eta 2005. urtean kaltetutako pertsonen kopuruak nabarmenak izan ziren; 56 eta 838 hurrenez hurren. Jatorri hidrikoko agerraldiei dagokienez, kontrolen emaitzak onuragarriak dira. |
| | 17. Dietaren bidez kutsatzaileen eraginaren monitorizazioa | 😊 | Euskadin 1995 eta 2005 artean, ez dira gainditu aztertutako lau metal astunen ingesta-muga kaltegarriak. |
| Hondakinak eta kutsatutako lurzorua | 18. Hondakin arriskutsuak | ☹️ | 1998. eta 2004. urteen artean, hondakin arriskutsuen sorrera %21,5 hazi da EAEan eta 390.898 tonaraino heldu da. 2004. urtean, hondakin arriskutsuen %55 balorizatu zen. |
| | 19. Kutsatutako lurzorua | 😊 | 1990-2005 artean Euskadin kutsatutako 106 inguru berreskuratu dituzte ; 229 hektarea, hain zuzen. Zifra hori aztertutako 241 lurzoruen %35 da. |

- 😊 Joera positiboa, helbururantz aurrera eginez
- ☹️ Aurrerapen positibo batzuk, baina ez nahikoa helburuak lortzeko, edo adierazlean joera gurutzatuak dituztenak
- ☹️ Kontrako joera, helburuaren aurkako norabidean